

—Egija ete-dok, bari Bakaldunak eztauskela ezer ekari?

Ume txirua, beste ume ain apainduba beragana juaten ikusirik, bildurtu zan; eta bere amek, hurlaz etorala ueste-ixanik, erantzun eutson: . . .

—Jauntxuboi; ume txiruak eztabe ludi onetan inogan-ri saririk artzen. Eta naiko erukarifikak gara, zen geure lepotik bare-egiten etori-barik. ¿Zegatik ete-zatoz ene mañari eure itxakaz min-egiten? Zuaz emendik, jaunoi, zuaz zeure bidez.

Firil etzan bildurtu; auferago-egin eban eta bere sakele-rik pelota edera atarata:

—Entsi—esan eutson—neuk emoten dauskat, beragaz jolastu aiantzat.

Eta eskafak egiteko astirik emon bage aldendu zan.

* * *

Ama-semiak gelduta (mirariuta) lotu ziran. Amearen begietatik negar-malko gozo bat jausi zan. Uniak go-gogof bere esku txikijetan pelota polita estututen eban.

Urtiak igaro ziran. Ume txiruak bere pelotia mañe-eban bitxirik edefena balitz lez. ¡Beragaz jolastuten zana! Go-xian eta afatsaldian, azke egoten zan unerik gustijetan ekifen eutson. Laster-bai-laster ezan erijan berakin pelotan ekin leiekian mutillik. Eta bere ospia Euzkadi'ko baztef gustijetatik zabaldu zan. Pelotazale gustijen gelgafi (miragafi) zan. Eta diruba irabazten asi zan.

Baña bifartian bixi-bixirik erabillan bere gomutean, umetan pelota edefa emon eutson mutiko begikua, Paul mutiko aberatsa. Etzan, ez, eskafitagia; ta, Paul'ak jakin-barik, bere bixitz-izpara bai-eban. . .

* * *

Amalau urte igaro ziran ordutik. Urtafillaren 5'ko gaban, auzokide gustijak lotan egozala, uri osua ixillik eguan. Auzo, txiro bateko etxetaz baten aurian mutil gaste mofo-oso bat lotu zan. Pendixera (balkoira) begiratu eban; eta gustija illun eguala aditurik, katubaren bizkortasunaz goira igon zan eta zaratarik txikijena egin-bage jatsi zan berialaxe, pendixan kutsatxu bat itxia gero.

Bijaramonian, etxetazeko etxekanderea jagi zanian, pendixa zabaldu eban eta, ikaratuta, lufian kutxatxu bat ikusi eban. Artu ta zabaldu eban eta idazki baten irakufi eban auxe:

“Aguñ Paul, ene ongille on ori: Gauñ urtiak dozakala ume aberats batek, beste txiro hati pelota edef bat emon ventsuan. Txiro arek pelota aregaz jokua ondo ikasi yua eta gauñ pelotaririk gorengoena dok. Urte batzutan diru naikua irabazi yok: bera ta bere amea alikatuteko, ta gainera laufiteko-milla batzuk uferatuteko.”

“Aguñ, Paul; ume aberats a eu intzan; txirua neu. Oin, Jaunak erabagita, zoritzañak io yozak eure aitearen igasunak eta beran Ameriketa'ra juan biaz-ixan yokala, ta eu kañeria itxi biaz ixan dokala bai-yakijat. Baña ez ardura; eure pelotieren sñeufija ordaindu-barik yaukadala etxuat aizu. Ora, bai, idazki onen onduan diru-ingi-pillua aukilinko dok. Euk niri beñola lez, neuk euri orain diñoskat: eutsi, neuk, emoten dauskat, berakin eure kañeria amañu dagikantzat.”

“Aguñ neure hostekua estutu gura ba-dok, jo.

Ukeltuñ'at Jon, pelotariagana.”

F.

Rousse ta lagunak

Ledesma-15'ka. 1458'g. wutiskina (telefonua)

Ikatz eta patata-bildegi andijak. Batez-be ereteko patatak.

EGITÖ'RA IGESI

Urteu ziran Sorkalde'ko Bakaldunak, biarba eldu ziran gaban bertan, eta urten-orduban gotzoma agertu yakon bafiro Joseba'ri, lo eguala, ta esan eutson:

“—Jagi adi, artu Umia ta bere Amea ta Egitö'ra iges-egik. Eta bertan lotu adi neuk esan-afte, Herodes'ek Umia iraitzeko billatzen dau-ta.”

“Jagi zan Joseba, Umia ta bere Amea artu, ta ondiño ga-ba zala, Egitö'rantz abijau zan.”

Egitö'ko mugaraño bi edo iru eguneko bidia eguan, eta eri-hijotzeraño elduteko be, aste betia naikua zan.

Lenengo, biarba, bide okeretatik abijau ziran, Herodes' en mofoyak ikusijak ez-ixattafen. Baña gero, bide zuzenian saitu edo-ziran.

Askitz (tradición) batzuk diñoenez, gustijak illun dagoz baña, Gaza-ziáf igaro ziran eta bertan atsedanduta itxaxs-ef tzezi-ziáf, Rafia, Faramah, Pelusa, Bubasti ta Helipolis' tik igaro ziran.

Bidezkunde onetzaz egizko goizparkijak eztiño ezeez, biarba gauza gelgaririk (miragaririk) jazo etzalako. Gu-zutezko goizparkijak, bafiz, gauza arigaririk asko edestu-ten dauskube: loriak zabalduen ziran eurak igarotian, zu-gatzak euren adaruk makutzen ebezan kerizpia enoteko, egari ziranetan iturijak agertzen ziran. Jaungo-ixunak bif-indaña jausten ziran, gokaiztuak iges-egifen eban ikarata-ta . . .

Gusti ori guzura da. Atsekabez ta nekiaren nekez igaro ziran, edozein bidezkarri letxe, ta au bai-dala polita ta mañ-gafija: ainbeste mañe-ginduzana geugaz bafindutia.

Herodes il zanian Nazareth'era bigurtu ziran, eta antxe asi zan Josu'ren bixitz apala, bere aldija eldu-afte.

EUKELDUN NESKATILAI

Etxekandera onaren ereduba

Gogof-gogofa eta, benetan, gixasemien bizi-bidia sendi, txiruetan. Gexuak, lan-ezak eta beste gauza askok ekarten (daben biaz-ixana autu-barik, neke ta atsekabe ugari jasan (sufridu) biaz-dabez bixi-ixaten eta ogasunik apalena jades-teko. Au egunian-egunian ikusten da.

Askotan, langille zintzuak, nekazari onak, salerosle txi-kijak, ez nasai-nasai, baña bai naiko eroso bixi-ixatera el-tzen dira. Baña ofetarabok Jaungoikua'k daki zeinbat urte igaro biaz-diran, zeinbat lan, zeinbat neke, zeinbat ardura, zeinbat urfasutan. . . ¿Eta zeinbat ekanñun (birtute) ixan biaz aiteak eta amek!

Beste askotan bariz amaika langille ixaten dira urfasu-nik aundijenian bixi-ixaten diranak.

Arek eta onek irabazpide berbera eukifen dabe. ¿Nun ete -dago, ba, urfasutan onen zegañija? Zorija ezta naikua, ber-ez, itaun ori erantzuteko. Sendi edo “pameli” aretan, gi-xona oso langille ta etxekova da, ta emakumia etxekandera ona.

Sendi gustijetan, baña txiruetan batez-be, etxekandera ona gustiz biazfekua da—Mr. Dupanloup diñon lez—gix-ona baño geyago, etxe onak ala txafak softuten dauzana. Baten baño geyagotan etxekandera zintzo onek, etxeko ar-durea erabillijaz ganera euren senañai lagun-egiten dauksie euren arazuetan.

Etxekandera azkañ onek begiratzen doguzanian; ikusten

dogunian goxetik gaberarte egin biar-daben alegiña; ziatz begiz joten dogunian egiñen daben gustija, goiz-otoya esanda ta euren apainketa apala eginda, etxe gustija arapalada baten garbitu ta atondu; gauza gustijak leku egokijan eta garbi-garbi; janarija bere orduban gertu; senafa ta umiak ondo apain eta garbi, inoiz bez janzkijak ufatuta; eta gusti au neskamerik bage: neuk diñot gelgafi (miragafi) dirala onetarikotxekandereak. Egiz andera andikija ondo apainduba, alpeña ta gogaikafija, bere apaingi ta aberaski gustijakaz ezta bestia baxen zindua ta gelgafi.

Emakume erua ta afoputsa, bere buruba ta bijotza andikeriz beterik daukozala ezta ezetarako gauza.

Emakume etxekoya, goyan ikusi doguna, naiz txirua ixanda be, ori da benetako etxekanderea. Ori da guk gel-duten doguna ta euzko-etxietan ikusi gura-doguna.

ETXAKIN.

Seyaska-abestija

(Basatxoritxu'ren otsaz abestuteko)

Miren

- 1.—Donoki goiko gotzon edefak,
Negaf-malkuak legoftu;
Urtzi Jaubia galdu bozube,
Bere Semia dot softu.
Matagafija, zoragarija,
Zorabijauta nauka ni:
Erdi ta ikusi, ta dan edefak
Zorabijauko zauz baike.

Gotzonak

- 2.—Aintza goyetan Jaun-goikua'ri!
Abestu daigun pozkiro,
Ludjian bere Seme-Gixona
Dakuskulako bafiro.
Ortze goyetan utzitu ziron
Geure lagunen lekubak;
Baña bafiro beteko dabez
Ume on-bidez gixonak.

- 3.—Mendi-artzañak, etofi zafez,
Arin-aringa etofi,
Artzain gustijen artzain nausija
Gauf yatzulako agiri.
Artzain ona naz, beronek diño,
Ardijak batzen bixiko;
Atzain ona naz, neure ardiak
Aldeztiafen naz ilgo.

Artzañak

- 4.—Gotiko deya entzun dogu-ta,
Arin guazan efira;
Ikusi daigun jazo dan auxe,
Guftu jayo dan Jaun-Aufa.
;Au dan umia gofik jatsija,
Urtzi beraren matia!
;Ogu ta santzo egin dayogun!
;Gora jaunaren Semia!

Miren

- 5.—Eukiko al neuz hudi gustiko
Gixa-emien bijotzak!
Pillo bat einda neskainkiozan
Beretzakotu lexantzat.

;Auxe alaya ta auxe zoruna!
;Jaungua'renak ixan gu!
;Auxe zoruna! ;Geuria Jauna
;Ordez-ordian ixandu!

Artzañak

- 6.—Geure bijotzak emen daukonaz,
Miren, neskatil edefa;
Tori, ta emon Semetxubari,
Legoftu dayan negafa.
;Ume matia! ;Seintxu liraña!
;Negarik ez egin gero!
GeGu poztuteko jatsi az-eta,
Alafu adi bafiro.

Iturburu.

Sendotasun-eredu goñiara

Lukasinski poloniar abeftzale bat zan.

Bere Abefiaren alde zikillua jaso eban. Arerioak (moskobiñak) oratu eban, eta eriotza baño neke goñiagoo emon eutsoen. "Schlüsselberg" deritzan gaztelutzar madarika-tuan saftu eban betiko. Zulo baltz ankeñ atan ogetasaspi urte egin ebazan, esparik gabe.

Bakounine erusitar matxiñadagiña be zulo bertara eldu zan, eta iru urteren buruz, angoo ñazeak zorabidean ezafi eban. Ezin geyago jasanda, burua erailtzeko zorian be inoiz aurkitu zan Bakounine au. Lukasinski'k, ostera, ez eban inoiz be esparik gabe. Bakounine berak edestu eban geroago Lukasinski zelan idoro eban Schlüsselberg'en. Aunela diño:

"Beingo baten, egunoroko eguraskaldian nenbillarik, agura bizaf lusedun bat ikusi neban. Makurtuta ibilli-afen, gizato sendoa izan zala ageri eban. Alboan, jagole bat eroan beti, inork itzik ez legiketsontzat. Maratz ebillan, ufats makalaz, ez inora ezta inori begiratzeko. Oratuen jagole egozan gudalburuetarik bat, gizon biotz-bera ta zintsoñ zan. Aunek esan eustan oratu zar a Lukasinski ospetsua zala. Afezkero, ez neban beste gurarik izan, Lukasinski' gana urbildu ta berari itz-egitea baizik. Aifaturiko gudal-buruak naikon au betetzera egin eustan. Aste batzuen buruz, Lukasinski jagole bagarik ebillan baten, urbildu nintza-kon, eta inork uartzeko, ixillik, "¡Lukasinski!"—egin neitson. Ikaratu yatan agura gaxoa, ta bere betsein illak niregan josirik diñost:

"—Nork deitzen nau?

"—Igazitik dagon oratu batek.

"—Zein urtetan gagoz?

"Urteta aifatu neitson, eta ostera diñost:

"—Nor da Poloni'ko agindari?

"—Nikola.

"—;Ta Kostasdin?

"—Il zan.

"—Zer jazoten da Poloni'n?

"—Bere zoruna laster yardetsiko dau.

"Anasa lafi ebilkon; begiok ostera be nireganatu yakozan. Baña geyago itzik-egiteke, bere ibilkera maratzta befa-rtu eban."

Auxe diño Bakounine'k, eta aunexek izan ziran Luka-sinski'tzazko lenengo izpafak, ogetasaspi urteren buruz.

AXE.